

Mana

TXILLARDEGI



BAPATEAN, eta zergatik edo nola azaltzen ez zaigularik, Londres-ko gobernuak 'uleritu' omen du Eire-ko arazoa; eta Auto-Determinazio eskubidea aintzakotzat hartzeko prest omen dago. Horixe bai miraria!

Prentsa irakurrita (batez ere kolore ofizialetakoa prentsa) horixe da inpresioa: miraria gertatu dela Irlandan. Goizean esnatu direla eiretarrek eta britaindarrek; eta bestetan ihintza edo izotza topatu izan dituzten bezala, 'mana' aurkitu dutela Irlandako penitze eta belardietan.

Hots: hori faltsua da goitik behera. Ipar Irlanda infernua izan da azkeneko urteetan; eta areago azkeneko hilabetean. Aurtan, oraindik ere urtea bukatua ez delarik 82 hildako izan dira Ulsterren. Aientatuak ez dira Irlandan bakarrik burutu: irakurleak gogoan dukeenez, Londresen bertan oso gertakari latzak errepikatu dira aurtan. Hitz batez: badirudi IRAk behartu dituela britaindarrek negoziatzera eta Auto-Determinazio eskubidea soluziozatz onartzera.

Baina hau ez du prentsak azaltzen, irakurleak ongi konprenitzen dituen arazoiengatik. Eta borroka latz, odoltsu eta luzearen ondorio besterik ez dena, Bibliako 'mana' berriaz aurkezten zaigu.

Britaindar imperialistek, jakina denez, hizkuntza lapurtu diete irlandarrei, ingelese ere abertzaleen arteko mintzaira izatea lortuz.

Britaindar imperialistak, inbasore hutsak izanik ere, erlijio-jazkeraz disimulatu dute Irlandaren okupazio eta uxtiaketa osoa.

Baina azkenean poto egin dute. Eta Irlandatik aldegitia erabaki. Irla birrunduz, bertakoak odoletan blai bustirik utzi; kolonialistek koloniatik joaterakoan leku guztietan utzi izan duten negar eta sofrikario giro berberekin.

Zorionak salare, bihotz-bihotzez, eiretar abertzale haurrei.

Hitzez, bertsoz

INAKI SEGUOLA



KULTURAREN legeak ekarri du hitzegiten den bezala idatzi ez baina idatzen den bezala hitzegin beharra; idatzizko pedanteriaren menderago eta ongi-hitzeingaino: gure bertsolari-kazetariak gogora ekartzea aski.

Aspaldi erdi-bertsolariz beteak genituen bazterrak. Zer egiten zuten hizketako dotoreziaren gudari haiek? Bertsoan bezala hizketan: «—ze moduz Amezkuan? —aruzkuan aiantxe onuzkuan». Zer egiten dute gaurko bertsolari osoek? Hizketan bezala bertsoan, eta hizketa Kulturaren logopediak elkortu digun honetan, ulertzen hasia naiz zergatik nauten egunetik egunera aspertzengako 50 urtez azpiko bertsolari guztiak, Kulturak hutsaldu gabeko bakarren bat salbu: salbuespentxo hauek, badakizue, 'klasiko' gaitzizen buruzko izendatzen dira.

Bertsolaritzak sagardotegitik komentura egindako bide itusua deitoratu zuen bere saioan Aresti poeta bertsozaleak. Ez zuen ikusi gizaioak komentutik belodromora eta telebistara egindako komeria hilgarria, famili-giro jatorraren igandero gozagarri bihurtua, garai bateko errosarioaren pare. Bertsolari onaren aldean, aukeran da oraintxe bertsolari txukuna, eguneratua, teknikaz ikaragarri jantzia, giza-legez eta jakitez puztua, tarteka bertsoaren teoriko ere badena, eskola onak eta musikak bertso txepela eginarazten diona, egoki eta gozo kantatzea zer den atzundurik bertsoa gaurkotasunean barrendu eta informazioz gainezkatu beharrik itolarritua.

Neri berriz, mustro desbideratu honi, gizon zaharrek eta nexka-koxkorrek bakarrik ematen didate oraintxe atsegin pixkat. Halaxe da: Uztapideren azken bertso-lagunez gainera, 20 urtez behehiko neskaizte bertsolarien lotsagaibetsunak gozatu ditu azken aldiari gure bihotz-belarriak. Hutsa da baina, horrenbestean, gaitza gaitzerdi.

HEMEROTEKA

ABC

Disparatearen antologia

EAJK Kongresuan duen bozeramailea, Iñaki Anasagasti, politikari arduratsua da. Baina gehiegitan disimulatzeko ahaleginak egiten ditu, eta batzuetan ezin hobeto lortzen du hori. Herenegun bezala, 'euskaraz' konpontzeko Ulsterreko iragarriakoaen antzeko soluzio bat erabiltzea Armadak eta eskuin gogorrrak beste inork ez duela eragozten ziurtatu zuenean. Anasagasti ahaztu egiten du «Konstituzioa Espainia nazioaren batasun zatiezinean onarritzen dela, espainiar guztien aberri komun eta bereizteza baita», euskal herri-tarrak barne hartuta; ahaztu egiten du hastapeneko nozio konstituzional hauek mende askotako errealitate unitario, geografiko, historiko, izpirituak, kultural eta psikologiko baten gauzatze juridikoa direla. Ulster formula eragozten duena ez da Armada, ez eta eskuin gogorra ere, Euskal Herriaren izaera koloniala aditzera ematen duenak gaizki tratatzen dituen Konstituzioa, Historia, errealitatea eta sen ona bai-



Greba orokorra



GALLEGO&REY / DIARIO 16

zik. Anasagastiren disparateak alopezari aurre egitea zein zailtasun handikoa den erakusten digu horrek parietalen gainetik izan beharrean azpitik eraso egiten duenean. Alopezia nazionalistak ez du aurrealdeko ileordearen moduko induljentziarik merezi.

EDITORIALA

EL CORREO ESPAÑOL

Historia hasi da

Industriako Ministro Kontseiluak atzo Bruselan hartutako erabakia ez da, itxura goi-behera, historiaren amaiera. Aitzitik, gauza garrantzitsuen hasiera da.

UZENDARIARI

Mario hipokrita

Mario, hipokrita hutsa zara; Artizabalaga, hipokrita hutsa zara; Pagazartundua, hipokrita hutsa zara. Hipokrita eta gezurtiak zarete! Zer egiten zenuten EGUNKARIAk Anoetan eskainitako harreran, gero dirulaguntza guztiak ukatzen badizkiozue? Zertan ari zarete esaten zuek, PSOE-EEkoek, salbatuko dizuela EGUNKARIA, gero Legebiltzarrean hankapean hartzen baduzue? Gezurtiak, hipokritak, politikeroak! Ez zarete besterik!

Eta zu, M.K. Garmendia, zer zara zu? Zer dira zure hitz politik guztiak, zure agerpen guztiak? Gero zure alderdiak, EAJK, zuek esandakoak zapuztu eta lohitu besterik ez badu egiten? Zer gertatzen ari da? Ez al zara ausartzen publikoki esatera, alderdiaren gainetik iritzi propioa zabalduz, Hizkuntz Politikaren arduraduna zaren horrek inongo ahalmenik ez duzula eta, ondorioz, gelditzen zaizun duintasuneko jarrera bakarra dimisioa dela? Ala, zure alderdiarekin bat zator eta Mario eta beste horiek bezala hipokrita hutsa zara?

Bitartean, betikook (politiika egiten omen

dugunok, baztertu egiten omen dugunok, euskarra arma gisa erabiltzen omen dugunok), geuk jarraituko dugu AEK sustengatzen. EGUNKARIA erosten, euskararen alde sortzen diren iniziatiba guztiak laguntzen. Ez baita zuei esker euskarra berehala salbatuko! Ez horixe!

MANU OHIARTZABAL

Donostia

Hilketa politikoen biktima

Nere izena Muso Isoyev da, eta Tadjikistan Errepublikakoa naiz, Pamir eskualdekoa. 1992ko abenduan, Tadjikistango Fronte Popularrako (FP) gizonak atxilotu ninduten. FP gobernu laguntzen duen talde paramilitarra da. Abenduaren 20ean nere gorpua Dushambeko kaleetan aurkitu zuten, tiroz josia.

1992ko maiatzetik gerrate zibila bizitzen ari dira Tadjikistanen, eta lurralde honetan

bizi den giza eskubideen arazokoa apenas eduki du oihartzunik munduko komunitate taldeetan.

Ni ez naiz Dushamben izan diren hilketa politikoen biktimitako bat besterik. Gehienak Pamir eta Garm eskualdeetakoak ginen. Tadjikistango ekialdean. Gobernuak oposizio gunezkat hartzen ditu eskualde hauek. Gobernuaren alde dauden tropak Dushamben sartu ondoren, ustezko oposizioaren aurkako jarrarapena hasi zuten, eta honek hilketak eta desagerketak zekarzkien. Pertsona batzuk momentuan hil zituzten. Hilketa eta desagerketa hauek, Barne Ministerioak eta FPko gizonen lana dira, zeintzuk hegoaldeko Kulyab eskualdeetakoak diren.

Amnesty International-ek mundu mailan kanpaina bat hasi du 'desagerketa' eta hilketa politikoen aurka, eta nere kasua ahaztua izan ez dadin lanean ari da. Zure laguntza eskaini nahi badizugu, neri eta beste biktimiei, jo ezazu Amnesty Internationalera eta beraiek esango dizute nola egin.

MUSO ISOYEV

Dushambe

GAIA JARRITA



Itoizko urtegia

Urtegia norentzat ta ura zertako, galdera egin zuten ezertan hasteko. Zortzi urtez jaso dute hainbeste zertako, eta ez arrazoia falta zaielako, baizik bankero jaunek nahi dutelako.

LONTXO ABURUZA

Egunkaria

Batzorde Parekidua: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluako Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorealeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: INAKI URUA

Gerentse: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXELU OTAMENDI

Zuzendariordea: LUZIAN ETEZAHARRETA

Publikizatzaia: MARI JOSE SARASA

Espainiako Publikatzaia: PUBLICITAS

Capitan Haya 1 2a 28020 Madrid • 91 555 11 01 / Faxa: 91 556 29 29

HELBIDEAK

Eredaldio eta Talerra: ANTZA S.A. Industriadale 01-02 Pabillio / 20160 Lasarte-Oria • 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publikatzaia eta Administrazioa: ANSO Jaktitona, 16-1 / 20010 Donostia • 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. Leher. / 01005 Gasteiz • 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monasterio, 45-13 esk. / (Irritzi dorrea) / 31011 Iruidea • 17 80 78 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1. ezkerria. / 48003 Bilbo • 410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1 / 503 Posta Kutxatila, 64100 Bidasoa • 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11